

Gender A B C

Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa



Emakumeen genitalen mutilazioa

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa

Emakumeen genitalen mutilazioa

Heziketa-modulu hau **APF – Associação para o Planeamento da Família** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	3
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: <i>Zer da EGM</i>	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	6
• Jarraibideak	6
2. jarduera: <i>Aminataren dilema</i>	9
• Testuingurua	9
• Gidoia	9
• Jarraibideak	10
3. jarduera: <i>Oporrak arriskuan</i>	11
• Testuingurua	11
• Gidoia	11
• Jarraibideak	12
Saioaren egitura	14
Moduluen zerrenda	15

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Modulu honek emakumeen genitalen mutilazioaren gaia jorratzen du eta beste gai hauei buruzko eztabaida zabalago batean kokatzen du: genero-indarkeria, giza eskubideak, gizarte-arauak, aniztasunaren onespina eta errespetua. EGMren (Emakumeen genitalen mutilazioaren) kausetan eta ondorioetan eta horren balizko prebentzioan zentratzen da.

2. Gai nagusiak

- Emakumeen genitalen mutilazioa/ablazioa.
- Genero-indarkeria/jardunbide tradizional mingarriak.
- Gizarte-arauak.
- Botere-sistema patriarkala.
- Sexu eta ugalketa osasuna eta eskubideak.
- Emakumeen eta nesken aurkako indarkeria.
- Giza eskubideen eta haurren eskubideen urraketa.

3. Gako-hitzak

Emakumeen genitalen mutilazioa/ablazioa
Gizarte-arauak • Patriarkatua

Oharra: Glosarioan, “Emakumeen genitalen mutilazio motak” atala ikusi.

4. Ikasketa-xedeak

- Emakumeen genitalen mutilazioari buruzko ezagutza eskuratzea.
- Norberaren gizartean eta beste gizarte batzuetan nesken/emakumeen sexualitatea nola kontrolatzen den hausnartzea.
- EGMa jasateko arriskuan dauden neskak/emakumeak ahalduntzeko bideak identifikatzea.

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ¹
1	Zer da EMG	45 minutu	- Aulkiekin osatutako zirkuluerdi batean lan egiteko moduko gela handia (osoko bilkura) - Ordenagailua - Bideo-proiektagailua - Audio-sistema - Pantaila-proiektagailua - USB bat bideoarekin (edo Interneteko konexio fidagarria) “Zer da EMG” liburukiak (hau da, glosarioan agertzen den EGMren definizioa; bat parte-hartzaile bakoitzeko)	★★★★
2	Aminataren dilema	60-70 minutu	- Aulkiekin osatutako zirkuluerdi batean lan egiteko (osoko bilkura) eta taldetan lan egiteko (3-5 parte-hartzaile) moduko gela handia “Aminataren dilema” liburukiak (bat talde bakoitzeko) - Paper zuria (orrialde batzuk talde bakoitzeko) - Boligrafoak	★★★★
3	Oporrak arriskuan	45 minutu	- Aulkiekin osatutako zirkuluerdi batean lan egiteko moduko gela handia (osoko bilkura) - Ordenagailua - Bideo-proiektagailua - Audio-sistema - Pantaila-proiektagailua - USB bat bideoarekin (edo Interneteko konexio fidagarria)	★★★★

¹ Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, “oso gomendagarria” den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

I. jarduera Zer da EGM² ★★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 5
Segimendua: 30



Materialak

- ☐ Aulkiekin osatutako zirkuluerdi batean lan egiteko moduko gela handia (osoko bilkura)
- ☐ Ordenagailua
- ☐ Bideo-proiektagailua
- ☐ Audio-sistema
- ☐ Pantaila-proiektagailua
- ☐ USB bat bideoarekin (edo Interneteko konexio fidagarria) “Zer da EGM” liburukiak (hau da, glosarioan agertzen den EGMren definizioa; bat parte-hartzaile bakoitzeko)

→ TESTUINGURUA

Jarduera honen **asmoa da tabua apurtzea eta EGMri buruzko komunikazio-bide seguru bat irekitzen hastea**. Halaber, xedea da EGMren jardunbide mingarria aztertzea eta parte-hartzaileek mutilazioaren helburu berbera duten, hau da, nesken zein emakumeen sexualitatea kontrolatu eta murriztu nahi duten, bestelako genero-indarkeriak –Europako gizarte-arauak barne– ulertzea.

→ GIDOIA



Parte-hartzaileei eskatuko diegu zirkuluerdi batean jesartzeko eta, orduan, *The Truth About Female Genital Mutilation* (Emakumeen genitalen mutilazioari buruzko egia) bideoa edo antzeko beste bideo labur bat jarriko diete.

² Iturria: Global Citizen Organisation, *The Truth about Female Genital Mutilation* (Emakumeen genitalen mutilazioari buruzko egia); online eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=WJwP6C5q6Qg>



Ziurtatu beharko dugu hautatutako bideoek EGMren gai nagusiak islatzen dituztela:

- Zer da EGM.
- Ondorioak (anitzak eta batzuetan hilgarriak).
- Prebalentzia (EMG jasan duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeen kopurua eta herrialdeak).
- Emakumeen eta nesken aurkako indarkeria da.
- Emakumezkoen sexualitatea kontrolatzeko tradizio bat da.
- Ez da jardunbide erlijioso bat (komunitate kristauetan, musulmanetan, juduetan eta animistetan gertatzen da).
- Nola desagerraraz dezakegu EGM.

→ JARRAIBIDEAK



- Parte-hartzaileei galdetuko diegu nola sentitzen diren bideoa ikusi ostean eta bideoan agertutako informazioaren bat harrigarria iruditu zaien. Eztabaida gidatuko dugu parte-hartzaileei galdetuz zer ulertu duten EGMren inguruan (definizioa, prebalentzia, non egiten den, ondorioak eta abar).
- Azpimarratuko dugu EGM jardunbide mingarri bat dela eta EGM jasan duten edo jasateko arriskuan dauden nesken/emakumeen kopurua nabarmenduko dugu. Horrez gain, azpimarratuko dugu EGM mundu osoan zehar gertatzen dela eta mundu guztiaren lankidetzaren behar dela hori desagerrarazteko.

Denbora gehiago izanez gero, eztabaidan sakonduko dugu galdera gidatuen bidez, besteak beste, honako hauek:

- Uste al duzu EGM genero-indarkeriarekin lotutako gai garrantzitsu bat dela? Zergatik?
- Zergatik gertatzen da EGM? Argituko dugu: 1) EGM gizarte-arau bat dela; familiek senitarteko emakumezkoen onurarako egiten dute; 2) EGMren helburu nagusietako bat dela emakumeen sexu-plazera kontrolatzea/murritztea eta, hortaz, emakumeak adulteroak izatea saihestea; komunitate askotan jardunbide honek justifikazio desberdinak dituen arren (edertasuna, araztasuna eta abar), jardunbidearen atzean dagoen arrazoi komuna da emakumezkoek gizartean dituzten jokabidearen eta rolaen kontrola, bereziki sexualitateari dagokionez
- Bururatzen al zaizu Europan neskei/emakumeei eskatzen zaien eta bere sexualitatea murrizteko helburua duen jokabideren/gizarte-arauren bat? (adibidez, neska batek eta mutil batek diru-zorroan kondoiak eramaten badituzte, modu berean hautematen da bien kasuan? Mutil bat kamisetarik gabe badoa eta neska batek top motz bat badarama, modu berean hautematen da? Neska bat eta mutil bat hankak zabaldua jesartzen badira, modu berean hautematen da bien kasuan? Neska bat planeatu gabe geratzen bada haurdun, neskaren eta mutilaren erantzukizuna modu berean hautematen dira?)

- Zeintzuk dira zure herrialdeko neskek/emakumeek dituzten sexu- eta ugalketa-eskubideak? (adibidez; familia-plangintzako kontsultak izateko eskubidea, anti-sorgailuak hartzeko eskubidea, ugaltzeko eskubidea, probokatutako aborturako eskubidea)
- Zer egin dezakegu EGM desagerrarazteko?

Bermatu beharko dugu parte-hartzaileek hautematen dutela EGM dela:

- sakon errotutako gizarte-araua hori burutzen den gizarteetan (hainbat pertsonak eragiten dute EGM egiteko erabakian, norbanakoaren "familia handitik" komunitate orokorrera arte, beste herrialde batzuetan bizi diren senideak barne); ados ez egoteagatik jasan dezaketen gizarte-diskriminazioaren beldurra benetako espetxe-zigorren, isunen edo osasun-arazoen beldurra baino indartsuagoa izan daiteke.
- gizonezkoen eta emakumezkoen arteko botere-desorekarekin lotutako jardunbidea.
- genero-indarkeria mota bat, egiten duten komunitateetan horrela antzematen eta aitortzen ez dena (sarritan emakumeek ere ez dute horrela hautematen).
- sarritan familiak emakumezko senideen ezkontzeko aukerak eta estatusa bermatzeko egiten duen jardunbidea; gurasoek ez dute EGM egiten alabei kalte egiteko; izan ere, uste dute hori egitea, oro har, nesken/emakumeen onurarako dela.
- nazioartean gaitzesten den jardunbidea (adibidez, Munduko Osasuna Erakundeak eta Nazio Batuen Erakundeko agentziek orokorrean), legez kanpoko egiten den herrialde guztietan. Zehazki, kontinente guztietako norbanakoek, komunitateek eta elkarrekin borrokatzen dute horren aurka, Afrikakoek eta Europakoek barne.

Parte-hartzaileek eztabaidan aipatzen badute, azpimarra dezakegu **ezin dela EGM gizonezkoen zirkunzizioarekin alderatu**: bi jardunbideek antzekotasunak badituzte ere, EGMren xedea emakumezkoen sexu-desira murriztea da eta gizonezkoen zirkunzizioaren helburua ez da haien sexualitatea murriztea. Gainera, oro har, EGMk ondorio negatiboagoa izan ohi du emakumeen zein haien haurren osasunean.

Garrantzitsua da mutilazioa egiten den komunitateetako kideak diren (edo kide izan daitezkeela pentsatzen den) parte-hartzaileak (neskak edo mutilak) ez estigmatizatzea. Honako hau jakinaraziko diogu taldeari:

- EGM egiten duten komunitateetako neska guztiei ez zaie mutilazioa egin.
- EGM egiten duten komunitateetako familia/norbanako guztiek ez dute mutilazioa babesten/egiten.
- EGM pertsonen barru-barruko gai konplexua da; pertsonen historiak pertsonalak dira eta ez zaio nahi ez duen pertsona bati galdetu behar (adibidez, inork ez dauka eskubiderik neska bati EGM egin dioten galdetzeko). Parte-hartzaileek nork bere istorio pertsonala konta dezakete, baina soilik haiek nahi badute- Parte-hartzaile batek emandako informazio pribatua ezingo da saiotik kanpo jorratu/partekatu, parte-hartzaile horrek baimen esplizitua eta osoa eman ez badu.

★ Mutilazioa egiten duten komunitateetako parte-hartzaileekin lan egitekotan, tokiko babesa bilatu beharko dugu (aholkularitza, parekoen babes-taldeak eta abar) parte-hartzaile horiek izan ditzaketen dilemak jorratzeko. Tokiko babesik ez badago, aztertu beharko dugu taldeko edo antolakuntzako parte-hartzaileak (bakarka edo lankidetzan batean) gai izango liratekeen parekoen arteko laguntza-zerbitzu egokiak emateko proiektu bat abian jartzeko

2. jarduera Aminataren dilema ★★



Jardueraren iraupena guztira

60-70 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 30
Segimendua: 20-35




Materialak

- ☐ Aulkiekin osatutako zirkuluerdi batean lan egiteko (osoko bilkura) eta taldetan lan egiteko (3-5 parte-hartzaile) moduko gela handia
- ☐ "Aminataren dilema" liburukiak (bat talde bakoitzeko)
- ☐ Paper zuria (orrialde batzuk talde bakoitzeko)
- ☐ Boligrafoak

→ TESTUINGURUA

Jarduera honen helburua da **EGMri buruzko lana modu sentikorragoan eta sakonagoan garatzea**, hain zuzen ere, taldean errespetuan oinarritutako eztabaida ireki eta zintzorako baldintzak sortuz. Arreta jartzen da arazoak konpontzean eta ahalduztzean.

→ GIDOIA



Dilemaren adibidea:

Aminatak 13 urte ditu. Emakumeen genitalen mutilazioa (EGM) egiten den herrialde batean jaio zen eta berari 5 urte zituenean egin zioten. Ondoren, 7 urte zituenean, Europara joan zen bere familiarekin. EGMk eragin negatiboa izan zuen Aminataren osasunean. Aminataren gurasoek hura eta haren ahizpa txikia eraman nahi dituzte oporretan, zehazki, bere jaioterrira eraman nahi dituzte aitona-amona bisitatzera. Aminataren ahizpa txikiak 5 urte ditu orain; horregatik, Aminatari beldurra ematen dio bidaia horretan ahizpa txikiari ablazioa egiteak.

Zer egin beharko luke Aminatak?

1. EGMz ahaztu eta oporrez gozatu bere herrialdean.
2. Bere gurasoekin hitz egin eta jakinarazi ahizpari ablazioa egiten badiote poliziari deituko diola.
3. Aholkulari batengana (edo giza eskubideen aldeko elkarte batera) jo aholku bila.
4. Beste zerbait (azaldu zer).

Dilemak egokitu ditzakegu lantalde zehatzaren arabera; hala ere, gogoratu behar da ezin dela beti jakin nor dagoen gure artean eta hobe dela parte-hartzaileen izenak edota istorio pertsonalak ez erabiltzea.

→ JARRAIBIDEAK

Laburpen-galderetarako, derrigorrezko jarduera berrikus dezakegu.

Aukera gisa eta **denbora nahikoa izanez gero**, parte-hartzaileek rol-joko bat sor dezakete dilemari emandako erantzunekin; hala, taldeak horren eraginkortasuna eztabaidatuko du abantailak eta desabantailak kontuan hartuz.

Pare bat ordu gehiago izanez ger, rol-joko bat aukeratu dezakegu eta horren konponbide desberdinak aztertu Antzerki Foro baten bidez, haren dinamika ezagutzen badute (komodin gisa, adibidez) eta jokoak haxe argi definitzen badu: pertsona zapaltzaileak; pertsona zapalduak; benetako bizitzan aldaketaren eragile izan daitezkeen pertsonaia giltzarriak eta klimaxa (gatazkaren/eraldaketaren unea).

3. jarduera Oporrak arriskuan³ ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 5
Segimendua: 30



Materialak

- ☐ Aulkiekin osatutako zirkuluerdi batean lan egiteko moduko gela handia (osoko bilkura)
- ☐ Ordenagailua
- ☐ Bideo-proiektagailua
- ☐ Audio-sistema
- ☐ Pantaila-proiektagailua
- ☐ USB bat bideoarekin (edo Interneteko konexio fidagarria)

→ TESTUINGURUA

Jarduera honen helburua da **ablazioa egin ez dioten eta hori egiten duen komunitate bateko kide den neska/emakume batek EGM egiten duen herrialde batera bidaiatzean jasan dezakeen arriskua aztertzea**. Horrez gain, jarduera honetan aztertuko da zergatik egiten den EGM eta zer egin dezakegun jardunbide mingarri hori desagerarazteko. Gainera, parte-hartzaileek honakoaren inguruan duten ezagutza garatzea du helburu: gizarte-arauen pisua; pentsamolde aldakorren erronkak; familiaren rola; komunitatearen rola eta EGM jasateko arriskua hori egiten den herrialdeetako senide hurbilak bisitatzerakoan.

→ GIDOIA



Parte-hartzaileei eskatuko diegu zirkuluerdi batean jesartzeko eta, orduan, "Going Back Home"/"De Retour au Pays" bideoa edo antzeko beste bideo labur bat jarriko diegu.

³ Iturria: AIDOS, MED-RES Toolkit for Trainers (Hezitzaileentzako tresnak), 2019; online eskuragarri hemen: <https://www.aidos.it>; video-clip by AIDOS, *Going Back Home/De Retour au Pays* (Etxera bueltan), 2017; online eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=GHh5Nf-syuE> (azpigituluak ditu hainbat hizkuntzatan, hauek barne: frantsesa, ingelesa, italiera, portugesa eta gaztelania).

→ JARRAIBIDEAK

Hasteko, parte-hartzaileei galdetuko diegu EGMri buruz zer dakiten (definizioa, prebalentzia, non egiten da, ondorioak, arriskuaren prebentzioa eta abar).

Bideoa ikusi ostean, eztabaida gidatzen dute parte-hartzaileei galdera hauek eginez:



- Zein da izebak bere ilobarekiko duen beldurra EGM egiten ez badu? Bideoaren arabera, zeintzuk dira EGM proposatzen duten pertsonen ematen dituzten arrazoi nagusiak?
- Ama EGMren aurka dagoen arren, zergatik ez du modu irekian aurkatzen?
- Zer pentsatzen dute beste pertsonaiek? Nola adierazten dituzte beren iritziak? (Parte-hartzaileek hori adierazten ez badute, azpimarratu genezake pertsonaia gehienek bere iritzi pertsonalak ematen dituztela kameraren aurrean eta ez beste pertsona batzuekin dituzten elkarrizketetan. Beraz, horrek islatzen du EGM gizarte-arau bat dela eta zaila dela horren inguruko iritzia modu irekian ematea).
- Zein da migratzaileen papera EGM desagerrarazteari dagokionez?
- Zeintzuk dira Afrikako eta Europako bizitzari esleitzen zaizkion ezaugarriak? Nola islatzen da migrazioa bideoan?
- Zein da gizonezkoen papera EGM desagerrarazteari dagokionez?
- Zein da emakumezkoen papera EGM desagerrarazteari dagokionez?

Argituko dugu EGM gizarte-arau bat eta genero-kontu bat dela eta horren jatorrizko kausak ugariak eta interdependenteak direla. Jardunbidea babesteko emandako arrazoi batzuk hauek dira: tradizioa; neska/emakume baten egokitasuna emazte gisa; garbitasuna; edertasuna; erlijioa eta abar.

Zehazki, garrantzitsua da gutxienez ondorio hauek ateratzea:

- EGM derrigorrezko arau bat da hori egiten dutenentzat edo mutilazioa egiten duten komunitateetako kideentzat (haientzat lege- edota erlijio-arauen parekoa da, are garrantzitsuagoa ere bai).
- EGM gutxitan eztabaidatzen da modu irekian.
- EGM emakume izateko baldintza bat da; gainera, emakumezkoen sexualitatea kontrolatzeko modu bat da. Izan ere, askotan, garrantzi handia dauka emakumeek emazte gisa duten egokitasunari dagokionez, hain zuzen ere, ezkontza errespetuzko familia duen errespetuzko emakumea izatearen funtsezko alderdi bat den lekuetan. Are gehiago, eskakizun bat ere izan daiteke emakume batek mantenua eta segurtasuna edukitzeko.

- Testuinguru askotan, EGM emakumeek iraunarazten duten tradizio bat da. Sarritan gizonezkoak jardunbidearen antolakuntzatik baztertzen dituzte, nahiz eta emakumeek mutilazioa gizonezkoen onurarako pairatzen duten EGM emakumei dagokien kontutzat jotzen da, kontuan hartuta gizonezkoek jardunbidean jokatzeko duten rola. Hala ere, adierazi beharra dago gizonezkoek funtsezko papera jokatzeko dutela jardunbidea iraunarazteko. Alderantziz, gizonezkoen papera erabakigarria izan daiteke komunitate batek jardunbidea behin betiko bazterrean utzi dezan lortzeko.
- Orokorrean, EGM egitea ez da banakako hautua: EGMrekin lotutako erabakiek ez dute bakarrik ama/aita/haurrak familia-gunea barne hartzen, baizik eta familia osoa. Neskaren amaren iritzia ez da beti amonaren edo izebaren iritzia baino garrantzitsuagoa (emakume eta gizonezko migratzaileek familia-eredu zehatzak dituzte eta, besteak beste, bere jaioterrietako komunitateek nabarmen eragiten diete).
- EGM desagerrarazteko, beharrezkoa da politikak egitea, etengabeko elkarrizketa egotea eta guztiak inplikatzeko, hau da, gizonak eta emakumeak, haurrak eta helduak eta mutilazioa praktikatzeko duten komunitateak eta praktikatzeko ez dutenak, eta politikariengandik erlijio-liderrenganako eta gizarte zibilerako transmisioa.

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Emakumeen genitalen mutilazioa

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna: _____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ Iraupena: _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

Gender ABC proiektuaren

MODULUEN ZERRENDA

Modulu
en
Bigarren
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 **Emakumeen genitalen mutilazioa**
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

Modulu
en
Lehen
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

Dokumentu
laguntzaileak

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra

Gender A B C

Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua